

## HARTZA dokumentu albuma

*Hartza* albumaren lantzeko ustiapen pedagogiko hau proposatzen dugu. Saioz saio, ahozkoaren, idatziaren eta irakurketaren lantzeko jarduerak badira.

Saioak bi alditan egitea hobe da, parte bat goizean eta bestea arratsaldean.

Aho hizkuntza	Irakurketa	Idazketa	Euskarriak - Materiala						
<p><b>1. Saioa: Gaian sartzeko</b>                      a) <i>Hartza (Kukuka-Kultulan)</i>                      Kantuaren ikastea</p> <p>b) Hurrek hartzaz duten irudikapenen biltzea                      Ikasleek hartzez dakitena eta uste dutena erranen dute, baita dituzten dudak eta galderak ere adieraziko.                      Irakasleak ere galdeak egin ditzake.</p>		<p>Irakasleak hiru zutabeko taula batean sailkatuko ditu segurtamenak, dudak eta galdeak.</p> <table border="1" style="margin-left: auto; margin-right: auto;"> <tr> <td style="text-align: center;">Segur dena</td> <td style="text-align: center;">Dudak</td> <td style="text-align: center;">Galdeak</td> </tr> <tr> <td style="height: 20px;"></td> <td></td> <td></td> </tr> </table>	Segur dena	Dudak	Galdeak				<p>Kukuka diskoa (Kultulan)</p> <p>Arbelean hiru zutabeko taula bat</p> <p><i>Grafismoa_1</i> fitxa</p>
Segur dena	Dudak	Galdeak							
<p><b>2. Saioa</b></p>	<p>a) Miatzea                      Irakasleak aitzineko saioko duda eta galde errazenak irakurriko ditu .                      Testua hitzez hitz irakurri gabe, ikasleek “zeharkako” irakurketa edo irakurketa “partziala” egin beharko dute ihardespenak non diren aurkitzeko.                      Ikasleek beren estrategiak azalduko dituzte.                      * Irakasleak ikasleen estrategiak idatziko ditu.</p>		<p><i>Irakurtzea_1</i> fitxa</p>						

<p>3. Saioa: Narrazioaren eta argibide dokumentuen konparatzea</p> <p>b) Ahoz aipatuko da zer den berdin eta zer desberdin dokumentu eta narrazio albumen artean</p>	<p>a) <i>Irakurtzea_2</i> fitxari so eginez, ikasleek argibide dokumentuen eta narrazioen arteko diferentziak aurkituko dituzte</p>	<p>c) Diferentziak afixa batean idatziko dira, ikasleek diktaturik</p>	<p><i>Irakurtzea_2</i> fitxa</p>
<p>4. Saioa: Hartzen ezaugarriak</p>	<p>a) <b>Xerka eta harrapa</b> Ikasleek "hartz" ikusten duten aldi oroz inguratuko dute albumeko orrialde batzuetan (pdf-a Ikasen webgunean da).</p>	<p>b) Ikasleek 9. orrialdeko eskemaren legenda osatu beharko dute (ikus <i>Idaztea_1</i> fitxa), ahalaz eredurik gabe.</p> <p>c) Albumari so eginez ikasleek zuzenketa egingen dute.</p>	<p>Albumaren PDF-a <i>Idaztea_1</i> fitxa <i>Grafismoa_2</i> fitxa</p>
<p>5. Saioa: Hartzen bizilekua</p> <p><b>a) Ikasleek hartzen bizilekuak kokatuko dituzte mapa batean</b></p>	<p>b) Irakasleak 10. orrialdea irakurriko die ikasleei</p>	<p><b>C) <i>Idaztea_2</i> fitxan, ikasleek izen hauek kokatuko dituzte: Pirinioak, Kantabriako mendikatea eta Alpeak.</b></p> <p><b>d) Kopia-kronometratua</b></p>	<p><i>Grafismoa_3</i> fitxa <i>Idaztea_2</i> fitxa <i>Kopia-kronometratua_1</i> fitxa</p>
<p>6. Saioa:</p> <p>a) Hurrek hartaz duten irudikapenen oroitaraztea Elikadurari buruzko galdeak eta dudak oroitaraziko ditu irakasleak.</p>	<p>b) Miatzeko argibideak erabiliz elikadurari buruzko fitxa osatuko dute ikasleek (<i>Argibideen biltzea_1</i>)</p> <p><b>d) Xerka eta harrapa</b> Ikasleek "hartz" ikusten duten aldi oroz inguratuko dute <i>Irakurtzea_3</i> fitxan.</p>	<p>c) <b>Irakasleak ikasleen estrategiak idatziko/oroitaraziko ditu.</b></p>	<p><i>Argibideen biltzea_1</i> fitxa <i>Grafismoa_4</i> fitxa</p>
<p>7. Saioa:</p>			

<p>a) Hurrek 14.-15. orrialdeei so eginen diete binaka</p> <p>c) Talde osoan, bi orrialdeen bilduma eginen dute ikasleek, bizpahiru erranaldi irakasleari diktatuz.</p>	<p><b>b) Irakasleak testua afixatuko du edo proiektatuko, irakurtzeko</b></p>	<p>d) Argibideen biltzea</p> <p>d) Elkarrekin sortu erranaldietarik bat hautatuko dute eta "Kopiaketa kronometratua" jarduera eginen.</p>	<p><i>Argibideen biltzea_2 fitxa</i></p> <p><i>Grafismoa_5 fitxa</i></p>
<p>8. saioa: 7. saioa bezalakoa</p> <p>a) Hurrek 16.-17. orrialdeei so eginen diete binaka</p> <p>c) Talde osoan, bi orrialdeen bilduma eginen dute ikasleek, bizpahiru erranaldi irakasleari diktatuz.</p>	<p><b>b) Irakasleak testua afixatuko du edo proiektatuko, irakurtzeko</b></p>	<p>d) Argibideen biltzea</p> <p>d) Elkarrekin sortu erranaldietarik bat hautatuko dute eta "Kopiaketa kronometratua" jarduera eginen.</p>	<p><b><i>Argibideen biltzea_3 fitxa</i></b></p> <p><b><i>Grafismoa_6 fitxa</i></b></p>
<p>9. saioa: 18.-19. or.: Eztabaida - Ihizari buruz - Hartza Pirinioetan begiratzeari buruz</p>		<p>Pankartetan zer idatz zenezake?</p>	<p><i>Idaztea_3 fitxa</i></p> <p><i>Grafismoa_7 fitxa</i></p>
<p>10. saioa: 20.-21. or.</p>		<p>Idatz ezazue zuen herriko ihauterietan zer gertatzen den. Hartza agertzen ote da?</p>	<p><i>Kopiaketa kronometratua_2</i></p> <p><i>Grafismoa_8 fitxa</i></p>
<p>11. saioa: 22-23. or.</p>	<p><b>Irakurketa kronometratua: hartzen izenak</b></p>	<p>Argibideen biltzea</p>	<p><i>Argibideen biltzea_4 fitxa</i></p> <p><i>Grafismoa_9 fitxa</i></p>

Kopiaketa kronometrata

Helburuak: Hitz zerrendak, nork bere erritmoan, hutsik gabe eta zalu kopiatzea.

Kopiatzeko estrategien bultzatzea.

Materiala: hitz edo erranaldi zerrenda bat eta minutukari bat.

Urraspidea: Irakasleak orrialde batean idatzi hitzen zerrenda edo erranaldiak irakurriko ditu.

Hitzen edo erranaldien irakurketa ez da oztopo izan behar.

Irakasleak:

*«Orrialde gibelean hitzak edo erranaldiak bederazka kopiatu beharko dituzue. Ezin ezabatuzko tintaz idatziko duzue, eta hutsak eginez geroz, hitza marratuko (gomarik ez).*

*Denbora mugatua da: 3 minutu dituzue hitzen edo erranaldien kopiatzeko. Hiru minutuen buruan, hutsik gabe kopiatu dituzuen hitzak kontatuko dituzue.»*

Irakasleak orrialdeak banatuko ditu, gordekerik.

Seinalean, ikasleek ahal bezainbat hitz edo erranaldi kopiatuko dituzte. Irakasleak galdeginen die idazkeraren zaintzea, zalu eginik ere.

Bukatu eta, ikasleek orrialde batean emaitzak idazten ahalko dituzte, saio batetik bestera egin aitzinamenduz ohartzeko. Ariketa hori behin baino gehiagotan egin behar da, zerrenda bera baliatuz.

Kopiaketa egin arau, hutsik gabe eta zalu kopiatzen dutenen prozedura ikustera emanen da:

Hitz laburra delarik, hitza bere osotasunean ezagutzea.

Hitz luzeagoa delarik, silabatan moztea.

Hitz multzo bat delarik, haren erranahiaren gogoan atxikitzea.

Ereduaren ikustera maiz joaten den haurrari strategiak proposatuko zaizkio: hitzaren argazkiaren egitea, silabak bere baitan erratea, hitzaren letreiatzea, beste hitz batekilako berdintasunen xerkatzea...

Estrategia eraginkorren esplizituki adierazteak haurren aitzinamendua lagunduko du.